



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a  
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

***Fake-news: fenomeno berri bat?***

*Ander Loyola Sergio*

179-186 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.23>

#### ANTOLATZAILEA



#### BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



#### LAGUNTZAILEAK



## ***Fake-news-ak: fenomeno berri bat?***

Ander Loyola Sergio

*Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) doktoregaia*  
[ander.loyola@unavarra.es](mailto:ander.loyola@unavarra.es)

### ***Laburpena***

Fenomeno berri bat al dira *fake news*-ak? Akaso bai, Kazetaritzaren ikuspegitik begiratu eta desinformazioaren genealogian murgiltzen bagara. Eta baita Soziologiatik aztertuta, informazioaren aroan, sare-gizarte bat sortu eta mezuen hartu-emanen dinamika eta denboren azkartzeak ohiko espazio eta egiturak irauli dituela ulertzen badugu. Ez, ordea, fenomenoaren analisi politologiko bati ekiten badiogu. Lan honetan, Politika Zientzietatik abiatuta, gezurraren eta politikaren arteko harremanean murgilduko gara, autore klasikoen eskutik, gezurraren erabilera politikoaren zergatiak aztertuz. Politikotasunaren ulerketa purua baztertuz eta politikotasunaren logika autonomoa besarkatuta, konturatuko gara gezur politikoa ez dela fenomeno berria. Aitzitik, egia eta gezurraren arteko dikotomia hutsala gaindituta, politikotasunaren baitako logika gatazkatsuan aletuko dugu *fake news*-aren fenomeno, politika boterea lortu eta mantentzeko arte gisa irudikatuta, eta gezurra errealitatea eraldatzeko tresna dela ulertuta.

Hitz gakoak: Gezurra, politika, *fake news*, boterea, eraldaketa soziala.

### ***Abstract***

*Can we consider fake news as a new phenomenon? Perhaps, if we approach it from the perspective of Journalism, by exploring the genealogy of disinformation. Similarly, from a Sociological point of view, if we recognize that in the age of information, a networked society has emerged, fundamentally altering the dynamics, timing, and spatial structures of communication. But not if we proceed to a political analysis of the phenomenon. In this study, from the viewpoint of Political Science, we will focus on the relationship between lies and politics, aiming to examine the underlying causes of the political use of lies. By rejecting a pure understanding of politics and embracing the autonomous logic of it, we will realise that political lies are not a new phenomenon. On the contrary, by transcending a simplistic dichotomy between truth and lies, we will analyse the phenomenon of fake news within a conflict-ridden logic of politics, envisioning politics as the art of acquiring and retaining power, and understanding lies as a tool for transforming reality.*

*Keywords: Lies, politics, fake news, power, social transformation.*

### **1. Sarrera: gezurraren erabilera politikoaz galdetzeko beharra**

Interneten hazkundeak, plataforma digitalen eta komunikazio birtualaren ugaritzeak, berehalako mezularitzak eta baita sare sozialek ere, herritarren, agintari publikoen eta enpresen komunikatzeko modua aldatu dute erabat. Errealitate honek sortzen dituen ondorio eta aukera berriei buruzko eztabaida agerikoa da: batzuen ustez, interneten etorrerak gizartean finkaturik dauden botere-harremanen nolabaiteko horizontalizazioa eragin du, izan ere, haren bidez herritarrek afera publikoan eragiteko edota bertan parte hartzeko tresnak eskuratu dituzte. Kontrara, beste sektore batzuetatik, sare sozialak, arautu gabeko elkarrizketarako eta informazioa partekatzeko espazio birtual diren heinean, asimetriak sor ditzaketela argudiatu da, narratiben eta diskurtsoen ekoizpen monopolistikoa areagotuz, horrek esparru politikoan duen eragin ukaezinarekin (Borchardt, 2019: 38).

Nolanahi ere, bistakoa da bai komunikazioak berak, bai hura hedatzeko baliabide eta moduek osagai eraldatzaile indartsu bat dutela gure gizartean, bereziki, kontuan hartuta gaur egungo komunikazioen liberalizazioari esker, ia edozein pertsonak daukala gailu teknologiko bat eskura eta, ondorioz, interneterako sarbide zuzena, non bere istorio pertsonala kontatu eta sinbolo propioak sortu ditzakeen. Mezu mediatikoak transmititzeko gaitasuna hain da handia, ezen oraindik ere zaila baita sakon aztertzea zer ondorio izango dituen horrek guztiak bizitza sozial eta politikoan (Herrera, 2013). Aldaketa azkarreko testuinguru honetan, XXI. mendeko

komunikazioaren berehalakotasunak sustatutako fenomenoetako bat *fake news* deituriko albisteen faltsutzea izan da, zeinak oinarritzko eskubideen urraketa legitimatu eta prozesu politikoak nabarmen baldintzatzen dituen eszenatoki baten eraketa bultzatu duen (Hernández, 2019: 19). Albiste faltsuen fenomenoak aspalditik existitu bada ere (Boczkowski, 2016: 108), badirudi gaur egungo egoerak berezitasunak dituela, egungo informazio-fluxuetan eta inoiz historian existitu ez bezala, eskala, irismen eta intentsitate izugarriko informazio-azpiegitura bat garatu den aldetik.

Hartara, askotarikoak dira konpainia teknologikoek plataforma digitalen, sare sozialen edo datuen erabilera prediktiboaren eta demokraziaren arteko harremanean duten garrantzia agerian utzi duten azterlan politologikoak. Azterketak hainbat ikuspegietatik jorratu egin dira: eskubideen urratzeetatik –intimitatea edo ahazte eskubidearekin sor daitezkeen gatazkak, kasu–, datu pertsonalen babesaren eta haien erabileraren inplikazio etikoen arteko tentsiotik, diskriminazioei dagokionez sor liratekeen arriskuetatik, edota hauteskunde-prozesuetan daukaten inpaktutik (Wylie, 2020). Aitzitik, gutxi dira gaur egungo errealtateari marko politologikoak aplikatzen dizkieten analisiak, alegia, gezuraren erabilera politikoaren zergatietan sakontzen duten lanak. Hau da, hain zuzen ere, ikerketa honen xedea: gezurra eta politikaren arteko harremanean sakontzea.

## 2. *Fake news*-aren fenomenoarekiko diziplinarteko hurbilpen labur bat

*Fake news* deritzonaren fenomeno sozial sortu berria deskribatzeko erabilitako terminoak antzekoak bezain nahaskorrak dira. Adituen esanetan, kontzeptuen arteko metonimiak termino bakoitzaren elementu bereizgarrien ezabatzea eragiten du, kategoriak osatzen dituzten elementuak berdinak ez diren bitartean (Hernández, 2020).

Terminoaren egokitasuna definitzeko, Kazetaritza eta Informazioen Zientzietatik ekin zaio orokorrean. Diziplina hauetan “desinformazio” hitza lehenetsi da, honen barruan hiru motatako informazio-desorden bereizita: batetik, informazioaren erabilera arduragabea dela medio eta kalte egiteko asmorik gabe, informazio faltsu, oker edo engainagarria duen mezu bat sortzen duten akatsak (*misinformation*, *mésinformation*); bigarrenik, edukien borondatezko faltsutzea, informazio faltsua, zehaztugabea edo engainagarria emateko, aurretiazko meditazio eta doloarekin (*disinformation*, *désinformation*); eta hirugarrenik, mezuak informazio konfidentziala biltzen duenean, hirugarrenei kalte egiteko asmoarekin (*malinformation*) (Wardle eta Derakhshal, 2017). Fake News-ei buruzko Goi Mailako Talde Independentearen txostenak albiste konkretu baten eduki faltsuaren arazotik harago, desinformazioa albiste batetatik oso urrun dagoen “gertaera” eta “praktika” anitzez osatutako informazio fabrikatu gisa definitu du (Europako Batzordea, 2018). Kazetaritzaren mundutik emandako definizioaren arabera, hortaz, fenomenoak helburu jakin batzuen zerbitzura nahita manipulaturako informazio-formulak barne hartuko lituzke, bai eta hartzaileak informazio publikoa eskuratzea ezkutatu edo saihesten duen informazioa. Engainuaren intentzionalitatetik haratago, ordea, fenomenoak elementu gehiago barne hartzen dituela esan daiteke, hala nola, erretorika, gaiaren eta tonuaren hautaketa, mezuaren eraikuntza diskurtsiboa eta argumentala (Campos Dominguez et al., 2022: 49), eta baita desinformazioak egun daukan helburutzat daukan errentagarritasuna, alegia, dirua irabaztea eta publizitate-diru-sarrerak sortzea ere (Cerdà-Navarro et al., 2021: 300).

Soziologiaren ikuspegitik, *fake news*-aren ezaugarri nagusia informazioa transmititzeko hedabideek jasan izan dituzten eraldaketa sakonean aurki daiteke. Gakoa, gezurren edukietan baino, gezurrak eraikitze moduan legoke. Manuel Castells soziologoak (2013: 49) informazioaren aro gisa batailaturikoaren baitan, denbora errealean interkonektaturik dagoen sare-gizarte oso bat osatu dugu. Informazioaren dinamika, honetan, ez da norabide bakarrekoa, ezta estatikoa ere; aldiz, funtzioa eta esanahia sortzen duten komunikazio-sare eta -fluxuen espazio batean egituratzen da, dinamikoa eta aldeaniztuna dena. Gure ikerketara ekarrita, gezur mediatikoaren zabalpena ahoz ahoko transmisioarekin hasi eta, ondoren, posta-gutuna, egunkaria, pantailak, edo e-maila bezalako euskarrien bidez gauzatu bazen, egun, sare sozialek sortutako sare berri hori izango da hedaketa esponentzialki biderkatzea ahalbidetu duena

(Cárdenas, 2019: 67). Hartara, *fake news*-aren fenomenoaren berrikuntza edo berezitasuna espazio eta denboren eraldaketari zor zaio, edo bestela esanda, sare sozialen erabilera da gezurraren hedapenari dimentsio unibertsala azkarra eta zabala eskaini dion paradigma-aldaketaren giltzarri, sare-gizartearen ezaugarri diren sare-konexioek zehazten dituztelako gezurraren erabilera mediatiko berriak (Arjona, 2020: 387).

Ordea, gezurraren erabilera politikoari bestelako diziplinetatik ekiten badiogu, konturatuko gara komunikabideetan gezurrak transmititzea, ez dela ezer berria; areago, gezurra askotan eta aspalditik erabili izan dela komunikabideetan. Zientzia Politikoen baitan, gezurraren erabilera mediatikoak emozio, sentimendu, sinesmenen, edo superstizioen bidez, biztanleriaren eta iritzi publikoaren pentsamendu indibidualizatuaren modulazio eta sorkuntza partziala eragiteko prozesu gisa aztertu dira (Ceacero, 2017: 61-62). Ikuspegi politologikotik, gezurrak estrategia politiko itxura hartuko du, errealitate baten desitxuratzeari helburu, iritzi publikoa sortu eta modelatzeko eta gizarte-jarreretan eragiteko (Barrientos-Báez et al., 2018: 44). Kazetaritzaren munduan izendatutako desinformazioaren eztabaida eta buru-hausteak alor politologikoan deskonposatzeak, beraz, oso bestelakoak —eta askozaz interesgarriagoak— diren hausnarketetara garamatza: funtsean, desinformazioaren erabilera aspalditik eman dela kontuan hartua, gezurraren erabilera politikoaren izaera ulergarri egiten duten zergatiak atzeman daitezkeela ulertzera.

### 3. Gezurraren erabilera politikoaren zergatietan sakontzen

#### 3.1. Egia eta gezurra: kategoria *kategorikoak* ala *erlatiboak*?

Gezurraren terminoa, bere horretan, nahasia da, hain zuzen ere, ez delako unibokoa, adiera asko dituelako, etikaren, moralaren, politikaren edo erlijioaren ikuspegitik interpretatzen den arabera. Arendtek (1996) egiaz hitz egiten duen bakoitzean, zein egia motaz ari den zehazten du: egia historikoa, egia hutsala, egia psikologikoa, egia paradoxikoa, egia erreala, egia filosofikoa, egia ezkutua, egia zaharra, egia nabaria, egia garrantzitsua, egia arrazionala, egia inpotentea, egia axolagabea, egia matematikoa, erdizkako egia, egia absolutua edota egia faktikoa. Horrela, ez dago egiarik konkretuagoa den zerbaiti erreferentziarik egin gabe, eta egiari egozten zaizkion adjektiboek kontzeptua konplexu eta sofistikatu bihurtzen dute. Gure kasuan, ez gara gezurraz modu abstraktuan arituko, baizik eta gezur *politikoak* duen zentzua eta irismena zehaztuko dugu.

Horri dagokionez, Baezek (2012: 288) edozein fenomeno politikoren azterketan bi ikuspegi daudela defendatzen du: batzuentzat politika bera etikarekin nahasten da; besteentzat, politika trebetasun-, estrategia- eta botere-joko gisa uler daiteke. Horrela, lehen tradizioarako, politika *etikoa* da, diskurtsoaren zintzotasunean oinarritzen da, eta demokrazia kode moral moduan eraikitzen du. Bigarren ikusmoldea, alabaina, politikotasunaren autonomiatik abiatzen da, hau da, politikotasuna moralaren ariketa komun gisa hartu baino, botereari buruzko eztabaida-eremu gisa ezaugarritzen du, eta horregatik, gezurraren erabilera boterea lortzeko bitartekoen parte izan daitezkeela ulertzen du, indarra, hertsadura edo indarkeria tresna erabilgarri ere izan daitezkeen bezala.

Lehen adierak, bada, kantiar unibertsaltasunetik edaten du. Ikuspegi honen arabera, egia ez da ez erlatiboa ezta subjektiboa ere, objektiboa, eraginkorra eta gizaki orori aplikagarria baizik, betiere, agenteak modu arrazionallean joka dezakeela eta arrazionaltasuna ona eta zuzena den hori bezala ulertuta. Inperatibo kategorikoaren aplikazioaren bidez, arrazoimenetik sortutako moral objektibo baten oinarriak ezartzen saiatzen da Kant, eta horretarako, gezurra eta egiazkotasunaren aginduak formala, aprioristikoa, aginduzkoa eta baldintzarik gabekoa den ikuspegi batetik definitzen ditu: adierazpenen egiazkotasuna gizakiak besteekiko duen betebeharrak formala izango da, alegia, egia esateko betebeharrak absolutua, horrek eragin diezaiokeen kaltea latza izanda ere (Kant et al., 2012).

Kanten tesiaren arabera, beraz, soziabilitatea (eta, beraz, *zoon politikón*-aren ekintza alor politikoan) zintzotasunetik abiatuta bakarrik da posible. Hortik, egia esatea funtsezko betebeharrak morala dela ondorioztatzen da, baldintzarik gabekoa, gure ekintzen ondorioak alde batera utzita; eta, *sensu contrario*, gezurra berez a priori txarra, bere inmanentzian eta bere motibazioak edo ondorioak

direnak direla, espero diren efektuetatik, kanpoko testuinguruetatik eta testuinguru historikoetatik haratago. Esan gabe doa egia eta gezurraren kontzeptzio honek zerikusi handia daukala teologia kristauarekin, zeinak Jainkoa gezurrik esan ezin duen eta egia hutsa gorpuzten duen Izate bezala eratzen duen, edota demokraziaren teoria liberalarekin, sistema demokratikoak etikaren praktika gisa eta moral unibertsalaren espazio komun gisa irudikatzen dituen. Hartara, gezurraren ezaugarritzeari ahultasuna, bekatusa edota antidemokratikotasuna egotziko zaizkio, egiak indarra, purutasuna edota askatasuna ordezkatzen dituen bitartean (Bueno, 2012).

Bigarren adieraren arabera, berriz, askoz zailagoa da gezurraren kontzeptuaren oinarriak eta irismena aztertzea, gezurra testuinguru zehatzen arabera guztiz baldintzatuta dagoen zerbait gisa irudikatzen duelako. Horrela, kristautasunaren eztabaida etiko-moraletatik blaitutako mundutik kanpo, gezurrak bestelako testuinguratzek aurkitzen ditu, eta aurreko proposamenarekin modu antagonikoan, gezurraren erabilera kontsiderazio eta testuinguru historikoan lurreratzen dela ulertu daiteke.

Hannah Arendt izango da gezurraren definizioan, gezurraren gauzatzeari historikotasun guztia aitortuko diona; egiaren izaera kontingentea den aldetik, egitateak ezingo dira hezur-haragizko mundutik bereizita dagoen beste unibertsio batetik ekarriak bailiran bezala tratatu. Ikuspegi politiko batetik abiatuz, Arendtek (1996: 243) ez du galdetuko zer den egia, baizik eta hitzari jendeak eskaini ohi dion zentzutik abiatuta, eremu politikoa osatzen duten egintzei eta gertaeretan murgilduko da, tarteka, gezurrari buruzko planteamenduak eginez. Hartara, Arendtek “egia” egitate bat partekatzen dutenen kopuruak ematen dion fidagarritasunaren arabera dela onartuko du, eta, beraz, egiak izaera politikoa izango duela, gezurrak izaera politikoa daukan bezainbeste. Teorizazio honen arabera, giza existentziaren erresuma amankomuna denarekin dago lotuta, munduan agertzeko eta gure esperientziak besteekin partekatzeko dugun gaitasunarekin. Kasu honetan, beraz, soziabilitatea (eta, beraz, *zoon politikón*-aren ekintza alor politikoan) egia amankomunak sortzean datza, egiak gertaerak elkarrekin bizitzearen eta jardutearen emaitza direlarik, gertaeren erregistroa memoria kolektiboan eta historian ehunduta (Arendt, 1996: 245-249).

Korrelatiboki, egia amankomunak osatzea ezinezkoa izango da gezurrari egikaritzeko aukera izpirik uzten ez bazaio, edo berdina dena, gezurra esan eta hedatzeko askatasunik eta ekintzarik gabe, ez da posible izango, kontrara, egia amankomunak sortzea. Egiaren eta gezurraren arteko harremana, hortaz, ez da itxia eta estatikoa, erlazionala baizik. Erabateko zintzotasunean oinarritzen den egiaren kontzeptualizazio kategorikoaren aurrean, bigarren adiera honek gezurra baldintzarik gabe debekatzeak gizarte-loturaren (eta askatasunaren) oinarriak ahultzen dituela argudiatuko du. Hain zuzen, Constatak Kanti aurpegiratzen zionarekin betez: egiazkotasunaren baldintzarik gabeko betebeharra onartzeak, ezinezko bihurtzen duela bizitza soziala (Kant et al., 2012).

Beharrezkoa da, beraz, egia bat sortzeko, oinarri amankomun bat, pertsonen esperientzien partekatzea eta horri guztiari zentzua ematea; baina era berean, elkarbizitzaren horren eraikuntza guztion eskura dagoenez, egiaren jaiotza horretan talkak eta gatazkak ere emango direla onartu behar da, gezurrak botatzeko zirikituerei ere bide eman behar da zaielarik. Egiaren eta gezurraren arteko gatazka, orduan, politikaren eremuan bertan erreproduzitu da, botere politikoarekiko borroka amaiezin batean, egia mundutar baten eta gezurraren potentzial politikoaren artean gatazka irekia dagoelarik (Arendt, 1996).

Laburbilduz, egia eta gezurra ez dira, berez, kategoria *kategorikoak*; ez dira, *per se*, politikoki onak edo txarrak; aitzitik, kontingenteak dira, agindu hipotetikoan, aukera pragmatikoan, uneen, enuntziatuaren formen, erretoriken edo hartzaileen arabera jarduten duten heinean, eta batez ere, testuinguru politiko zehatzaren arabera legitimitate-printzipio desberdinetara jotzeko aukera ematen duten heinean.

### 3.2. Politikotasunaren izaera lizuna: politikak logika autonomoa dauka, eta horrek dena zikintzen du

Gezur politikoa parametro historiko-politikoan arabera tratatu behar da, ez metafisika hutsezko gaietan oinarrituta. Logika horretan, gezurra jada ez da mespretxagarritzat edo kondenagarritzat har

daitekeen zerbait, kontran, beharrezko izatera ere iristen da, batez ere, *statu quo* politikoa eraldatu nahi duen gizaki edo taldeentzako. Gezur politikoa baliozkotasuna aitortzeak politikaren zikinkerian arakatzera garamatza eta, bide horretatik, politikaren oinarrian dagoen galdera klasikoaren inguruko eztabaidara: “helburuak justifikatzen al ditu bitartekoak?”.

Makiavelo izango da, erlijioaren eta moralaren nagusitasunaren aurrean, politikotasunaren autonomia aitortzen lehena. Izan ere, Makiaveloren lanen sorrerara arte, diskurtsoa etiko-politiko baina ez da, pentsamendu erromatarrek juridikoki kolonizatu eta kristautasunak teologizatu. Marchartek ongi laburbildu moduan (2009: 75), auzi politikoak gai erlijioso, moral edo juridikoekin nahastuta, gizarte ordenatua, zuzentasuna edo ontasunaren ideiekin lotuko da politika, baztertu berri dugun egia eta gezurraren lehen kontzeptualizazioak egin moduan. Hala, Makiaveloren idatziak iritsi arte, botere politikoa Jainkoa, justizia, bizitza ona edota askatasuna bezalako goi-helburuak lortze bidean bitarteko bat baino ez zen. Alabaina, XVI. mendean zehar Europan emango den pentsamendu politikoaren eklosioaren eskutik, politikaren kontzeptua birformulatu eta, korrelatiboki, ekintza politikoaren tresna gisa Estatu arrazoiaren kategoriaren sorrera eta garapena emango da. Politika justiziaren eta arrazoiaren arabeko gobernuaren artetzat hartzetik, Estatu baten arrazoitzat hartzera pasatuko da, politikaren azken irizpidea boterea dela planteatzen duen ikuskera batekin lotuz (Rus eta Zamora, 2000). Makiavelok bere lanean Estatu arrazoiaren esamoldea erabiltzen ez badu ere, ideia hori Europa modernorako proiektatzen lehena izango da; Estatuaren helburuaren arazoa termino estrapolitikoetan aintzat hartzeari utzi, boterea helburu gisa kontzeptualizatu, eta bere ikerketak boterea eskuratu, atxiki eta hedatzera hobekien egokitzen diren bitartekoetara mugatuko dituelarik. Lehenengo aldiz, Makiavelok moralaren, etikaren, erlijioaren eta metafisikaren atzaparretatik emantzipatuko du boterea, beste edozein iturritatik independenteak diren balioen sistema autonomo gisa aurkeztuz (Echandi, 2008).

Esfera politikoak eremu moral indibidualarekiko daukan autonomian oinarrituta, Estatuaren arazoen gidaritza banakako printzipio erlijiosoen argitan aztertu edo baloratzea deuseztatuko da eta Estatuaren helburu nagusiak betetzera bideratu (Curzio, 2004), politikotasunaren autonomiaren finkapen berri bati bide emanez. Politikotasunaren autonomiak onartzen du botere-arauek lehentasuna dutela etikaren eta moralaren beste arau batzuen gainetik; eta bidenabar, Estatu-arrazoiaren lehentasuna boterearen lorpena oztopatzen saiatzen diren barneko edo kanpoko indar guztiak neutralizatu, eta gero, boterea hedatzeko eta hazteko baldintzak sortzea dela (Curzio, 2004).

Estatu-arrazoia herrien gainean ezarritako domeinua sortu, mantendu eta handitzeko logika gisa definituta, helburu horiek lortzera bideratutako ekintzen legitimitatearen eta justifikazioaren enigma agertzen zaigu indarrez: “Politikan aritzeko bitartekoek zuzenak izan behar al dute beti?”. Politikotasunaren ulkerak honen arabera, erantzuna ezezkoa izango da, argi eta garbi. Estatu-arrazoiak, politikaren autonomiaren adierazpen gisa, argiki onartzen du —politikotasuna justiziaren eta lege harmonikoen gobernupean bizi den giza-komunitate gisa irudikatzen duen kontzeptzio honen aurrean—, Estatu-arrazoiaren bestelako politikak boterea bera duela helburu, bidezkoa/bidegabea edota legitimoa/ez-legitimoa den hori definitzeko bidean, irizpide nagusia botereari eusteko balio duen ala ez kontuan hartzea izango delarik (Rus eta Zamora, 2000).

Politikasunaren logika autonomoa gezurraren fenomenora eraman eta aplikatuta, erabat ulergarri zaigu gezurraren erabilera politikoa, edota Arendtek (1996) ondo gogoratzen duen bezala, politika gezurrerako leku pribilegiatua izatea. Etikaren eta justiziaren emaitza den politikotasunarekin erkatuta, politika boterea konkistatu eta mantentzeko artean oinarrituko bada, logikotzat har daiteke gezurra tresna beharrezko eta zilegi bihurtzea, boterea eskuratzeko helburuari zuzenki lotuko zaion heinean. Boteretzea lortzea azken xedetzat hartuta, gezurrak beharrezkoak izango dira, edo ez, helburu hori bete ahal izateko erabilgarri diren arabera.

Hain erredukzionista ez den gezurraren azterketak agerian uzten digu, hortaz, politikaren esparruan, boterearen defentsarako eta osotasunerako erabiltzen diren bitarteko oro baliozkoa eta zilegi izateaz gain, beharrezkoa eta ezinbestekoa ere badela. Ikuspegi honetan, gezurra eta politika bidelagun izango dira, hain zuzen, gezur politikoa erabilera botereari eusteko bide emango diolako.

Hortik abiatuta, politikaren arloan, gezur politikoa gauzen gobernurako erabil daitekeen lehen mailako arma politiko bihurtzen da. Politikari dagokionez, gezurrak ez du moralean, etikan edo erlijioan erabiltzen diren logika eta kode berberak erabiltzen; gezur politikoak ez du zerikusirik ez kristautasunarekin, ez fede txarrarekin, baizik eta errealtatearen kudeaketa eraginkorrarekin, botereari eusteko eta hura eratzeko aukeraren eraginkortasunarekin.

Gezur politikoaren gaiztakeriari buruz eztabaidatzea, beraz, antzua bihurtuko da. Hain zuzen ere, egiazkotasunaren izaera kategorikoa babestu eta gezurra botatzeko aukera bera ezabatzea helburu daukaten horiek bertsuak izango direlako politikotasuna neutralizatzea bilatuko dutenak. Edo, beste era batera esanda, gezur politikoak jarduera publikoa zikintzen duela sinesten duten horiek izango dira, politika ulertzeko puritanismo manikeo batetik, politikotasunaren izaera espezifiko eta autonomia ukatuko dutenak.

### 3.3. Gezur politikoa eta bere erabileraren azken helburua: eraldaketa soziala

Behin politikotasunaren azterketa etikarekin duen nahaste-borrastetik erauzita, ulergarriago zaigu gezurraren baliatze politikoaren erabilgarritasuna. Politikotasunak, irudimenez jokatuta, agertoki eta jokaleku berriak eraikitzea du helburu. Irudimenak efektu produktiboak baditu, politikan duen aplikazioak erakusten du egia faktikoa nahita ukatzea —hots, gezurra esateko trebetasuna— eta gertakariak aldatzeko gaitasuna —hau da, politika egiteko gaitasuna— elkarri lotuta daudela, gezur politikoak gaitasun eta efektu performatiboak dituen aldetik (Arendt, 2017: 88).

Ikuspegi horretatik, gezurrak politikan duen lekua dimentsionatzeko garrantzitsua da gezurraren maila performatiboari erreparatzea, gezurrak errealtate oso bat deskribatu ez ezik, errealtate berriak eraikitzen ere saiatzen baita. Derridak (1995) ere onartzen du gezurra, funtsean, performatiboa dela. Autorearen iritziz, gertaerak (eta egiak) ez dira berez errealtate naturalak, interpretazioen menpe daude, baina ez bakarrik barne-izaera subjektibokoak diren irakurketen menpe, baita *ad extra* ondorioak eragiten dituzten interpretazio errealtatiboen eraginpean ere. Arendten ildo beretik, politikan gezurra beste gezur batzuekin etengabeko prozesu batean eraikitzen dela defendatzen du, eta gezurrak mundu bat sortzeko helburua duela, ekintzaren munduko gertaerak berak kontingenteak direla oinarri hartuta. Nahita egindako gezur politikoak eraikitzea, beraz, ez da kasualitatea, sakoneko arrazoi jakin bati erantzuten diote: botere politiko eta sozial handiagoa dutenek modu eraginkorragoan eragin ahal izatea gizarte-munduko gertaeretan eta, are gehiago, mundu komuna posizio hobean eraiki ahal izatea. Gezur politikoa ekintzaren munduaren parte da, testigantza batzuk besteen gainetik jartzeko errealtatearen eraikuntza bat eratzen baitu, eta arte erretoriko soila izatetik, boterea gauzatzeko beste modu bat izatera pasatzen da (Chamorro, 2021: 178).

Arendtek (2017) sarritan gogoratzen duenez, egia amankomunean eraikitzen den egitatea bada, egiak bezainbeste, gezurrak kidetasun ukaezina du ekintzarekin, munduaren aldaketarekin, laburbilduz, politikarekin. Gezurtia, dio Arendtek (2017), aktore politiko bat da, amankomunean dauden egitate konpartituek osatzen duten errealtate hori deseraiki, formaldatu eta desberdina izatea nahi duelako. Gezurtiak, alegia, mundua aldatu nahi du. Alor mediatikora aplikatuta, gezur politikoa beharrezkoa den momentuan egiten den distortsio-ekintza bat litzateke, egiaren ulermen komunaren birkonfigurazio bat osatze aldera (Arendt, 1996). Hartara, gezurraren erabilera boterea errealtatzailearekin lotzen da, hain zuzen, sinesgarritasuna lortzeko aukeraz baliatuta, “zerbait berria sortzeko” gaitasunean sustraituta baitago. Bide honetan, gezur baten baitan bizitzen diren egitateak eta gertaerek errealtatea eraiki dezakete (Chamorro, 2021: 176).

Gezurraren historia prediku moraletik bereizita, beraz, bistan dago egitura mediatiko berriek erabiltzen dituzten gezurren erabileren zergatia: orobat, zentzu komun gisa ulertutako egia da irauli nahi dutena, edo bestela esanda, errealtate politiko eta sozialaren eraldaketa sakona bideratu. Politikaren eremua ekintzaren eta eraldaketaren esparrua izanda, gezurra lehen mailako ekintza-forma izatea adierraza zaigu da, gezurra bizitza politikoari dagokion giza gaitasun gorenarekin eta politikak duen helburu gorenarekin lotuko baita: kronika aldatzea, koletibotasuna aldatzea, mundua aldatzea (Arendt, 1996: 262).

#### 4. Ondorioak: gezurra eta politikaren arteko harreman gatazkatsua

Akaso garapen teknologikoak sare sozialen erabilera izan duen eraginak aldaketa nabarmena ekarri du informazioaren hedapenean, nagusi den paradigma komunikatiboa aldatu eta gizarte-sare berri bat osatu denean. Halere, gezur politikoa Historia bezain zaharra da, eta *fake news* anglizismoaren edo desinformazioaren termino akademikoaren atzean politikoki begiratuta, ez dugu ezer berririk aurkitu.

Ez da existitzen politikoki aproblematikoa den mundurik, indarkeriarik edo gezurrik ezaren ondorio den errealitatea falazia bat da. Egiaren eraikuntza amankomun bat emateko gezurrak existitu behar dira, eta gezurrek, azken batean, zuzeneko harremana daukate politikarekin, eta hortaz, boterearen kudeaketa gatazkatsuekin. Teoria politikoa, boterearen teoria den aldetik, ez da moralaren arauen arabera neurtu behar. Horregatik, antzua izango da gezurra eta egiaren arteko harremana modu kategorikoan aztertzea, eta kontrara, komengiarria gezurra zentzu politikoan ulertu nahi izatea, bide horretan, konturatuko garelako ez dagoela gezurraren erabilera behin betiko konpondu ez ezabatzerik, egia absolutuaren distopia politikoan eroriko bagara.

Gezur politikoa, boterea lortzeko bidean, borrokaren arma nagusietako bat zen, da eta izaten jarraituko du. Gezuraren erabilera politikoa zikina edo etikaren kontrakoa dela aldarrikatzen dutenek, politikotasunaren izateko arrazoiak ulertu ez dutela baino ez dute erakusten. Izan ere, politikak ez du gizakiaren barnekotasuna eragin edo eraldatu nahi, kolektiboaren mundua baizik. Politikotasunaren-mundua moralitasunetik emantzipatu zenetik, bere benetako muinari jarraitzen dio: boterearen bidez, eta beharrezkoa izan daitekeen edozein bitarteko erabilita — gezurra barne— eraldaketa-efektu bat arrakastaz lortzea, mundua aldatzea.

Gezurra politikaren eremuan agertzen denean, beraz, ez gara banakako portaera moralgabe baten adierazpenaz arituko; gezur politikoaren zergatien azterketa politologikoak erakusten du gezurra ez dela politikaren desbideraketa bat, baizik eta, zenbait kasutan, bere funtzionamenduaren parte integrala, boterea eskuratzeko, mantentzeko edo justifikatzeko diskurtso lehiakorren arteko borrokaren baitan, estrategikoki erabilitako tresna baizik.

Horrela, Makiavelok politikaren benetako muina zein den onartu zuenetik, aitortu behar da engainua eta iruzurra baliabide baliagarriak direla obedientzia lortzeko eta indar politikoak gobernariaren interesei probetxuzko norabidean mobilizatzeko, gezur politikoaren erabilera baliozkotuko duen legitimitate-esparrua, hain zuzen ere, garaipen politikoa izango den aldetik.

Gezur politikoaren erabilera zikina izan daiteke, hain zuzen ere, politika lizuna delako, giza eskuekin egiten delako. Arazo politikoak, funtsean, ez dira arazo-etikoak, botere arazoak baizik. Gezuraren erabilera politikoak zerbait argitzen badigu zera da: proiektu politiko adina etika egon daitezkeela, eta, azken finean, funtsezkoena ez dela ea irizpide moralek bitartekoak justifikatzen dituzten edo ez, baizik eta nork duen boterea hartutako erabaki politikoaren eta erabilitako bitartekoaren etikotasun politikoari buruzko irakurketa inposatzeko, erabaki horiek gutxi gorabehera egiazkoagoak edo bortitzaagoak izan edo ez (Iglesias, 2013).

#### 5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Honaino gezur politikoaren zergaitien analisi politologikoa, gezurra eta politikaren arteko harremanetik abiatuta. Zientzia Politikoak, ikusi moduan, ezin du gezur politikoaren erabileraren fenomenoaren behin betiko ebatzi, berorren azpian politikotasunaren izaera eta honek boterearekin duen harremanaren gatazka sakon eta konponezina dagoelako. Politikaren esentzia bera gatazkatsua da, eta boterearen egiturarekin lotuta dago. Boterea borrokaren bidez eskuratzen da, eta borroka horretan erabiltzen diren narratibak ez dira beti egiazkoak, baizik eta eraginkorrak, konbentzitzen dutenak, legitimatzen dutenak. Gezuraren erabilera desagerrarazi ezin den testuinguruan, beste diziplina batzuetatik egia eta gezurraren arteko tentsio hori gizarte demokratiko batean kudeatzeko proposamena egin liteke. Hartara, etorkizuneko ikerketa batek errealitate konplexu bezain kontraesankor hori aplikatu dakiokeen kudeaketa-eredu demokratiko bat planteatu lezake, nagusiki, Zuzenbide Konstituzionalaren ikuspegitik.



## 6. Erreferentziak

- Arendt, Hannah (1996). Verdad y política. *Entre el pasado y el futuro*. Bartzelona: Península.
- (2017). *Verdad y mentira en la política*. Bartzelona: Página Indómita.
- Arjona Sánchez, Miguel J. (2020). La información en la era de internet: el caso de las fake news. *Revista Estudos Institucionais*, 6 (2), 376-394.
- Báez Evertsz, Carlos Julio (2012). Comunicación, política y ética. *Ciencia y Sociedad*, 37 (3), 275-292.
- Barrientos-Báez, Almudena; Barquero Cabrero, Mario; eta García García, Enrique (2018). Posverdad y comunicación 2.0: El reto periodístico de una era sin periodistas. *Revista de Ciencias de la Comunicación e Información*, 23 (1), 43-52.
- Boczkowski, Pablo (2016). Posverdad: las noticias falsas y el futuro del periodismo. *El Mostrador*, 1-15.
- Borchardt, Alexandra (2019). El regreso del periodismo. *Comunicación: estudios venezolanos de comunicación*, 186, 37-38.
- Bueno, Gustavo (2012). Sobre la mentira y la mentira política. *Tesela*, 106.
- Campos-Domínguez, Eva; Esteve-Del-Valle, Marc eta Renedo-Farpón, Cristina (2022). Retóricas de desinformación parlamentaria en Twitter. *Comunicar*, 72, 47-58.
- Cárdenas Rica, María Luisa (2019). Análisis de las iniciativas fact-checking en España. *Revista Inclusiones*, 6, 62-82.
- Ceacero, Jacinto (2017). La posverdad en educación. *Libre pensamiento*, 90, 61-71.
- Cerdà-Navarro, Antoni; Abril-Hervás, David; Mut-Amengual, Bartomeu; eta Comas-Forgas, Rubén (2021). Fake o no fake, esa es la cuestión: reconocimiento de la desinformación entre alumnado universitario. *Prisma Social: revista de investigación social*, 34, 298-320.
- Chamorro Muñoz, Alicia Natali (2021). El prejuicio en la mentira política. Una mirada desde la injusticia epistémica. *Revista de derecho: División de Ciencias Jurídicas de la Universidad del Norte*, 55, 172-188.
- Curzio, Leonardo (2004). La forja de un concepto: la razón de Estado. *Estudios Políticos*, 2, 27-71.
- Derrida, Jacques (1995). Historia de la mentira: Prolegómenos. *Conferencia dictada en la Facultad de Filosofía y Letras, organizada por la Universidad de Buenos Aires*.
- Echandi Gurdíán, Marcela (2008). La Autonomía de la Política y la Razón de Estado en la filosofía de Nicolás Maquiavelo. *Revista Estudios*, 21, 113-122.
- Europako Batzordea (2018). *A multi-dimensional approach to disinformation: Report of the independent high-level group on fake news and online disinformation*. Luxemburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Egoitza.
- Hernández, León (2019). Guion oficial de mentiras y fake news como parte de la propaganda. *Comunicación: estudios venezolanos de comunicación*, 186, 19-29.
- (2020). Desinformación no es sinónimo de fake news. *Comunicación: estudios venezolanos de comunicación*, 189, 29-34.
- Herrera Aragón, Alberto (2013). Redes sociales: ¿el inicio de una revolución democratizadora?. *Revista IIDH*, 58, 21-34.
- Iglesias Turrión, Pablo (2013). *Maquiavelo frente a la gran pantalla. Cine y política*. Madril: Akal.
- Kant, Immanuel; Constant, Benjamin; Albial Lopiz, Gabriel Pedro; García Martínez, Eloy; eta García Morente, Manuel (2012). *¿Hay derecho a mentir? La polémica Immanuel Kant/Benjamin Constant, sobre la existencia de un deber incondicionado de decir la verdad*. Madril: Tecnos.
- Marchart, Oliver (2009). *El pensamiento político posfundacional*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica de Argentina.
- Rus Rufino, Salvador eta Zamora Bonilla, Javier (2000). La razón de Estado en la Edad Moderna. Razones sin Razón. *Lecturas sobre el pensamiento jurídico y político de la Europa de las nacionalidades: actas del Congreso Internacional "Racionalismo y Nacionalismo en la Europa Moderna"*, 11-28.
- Wardle, Claire eta Derakhshai, Hossein (2017). *Information disorder. Toward an interdisciplinary framework for research and policy making*. Strasbourg: Council of Europe.
- Wylie, Christopher (2020). *Mindf\*ck: Cambridge Analytica. La trama para desestabilizar el mundo*. Bartzelona: Editorial Roca.